



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak
Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

2016ko ekainak 20 - 21 - 22 • Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera – Donostia

Lantegiaren kronika. 2. eguna: ekainaren 21a

Kronikagilea: Garazi Arrula

DESERRIA ITZULTZEN (II)

Bigarren egun giroz goxoa testu azterketari dedikatu diote osoki. Sartu-irten bakoitzean txirrina joz edo txartel bidez zabaldu beharreko atea gurutzatzea lortu dugunean, itzultzaileak aztergaiaren arabera bi taldetan banatu eta gela banatan elkartu dira lanerako. Bista zoragarriko behatokitun langelan, aurrez landu eta itzulitako Joseba Sarrionandiaren hamabi poemei begiratu diete Barbarak, Laurak eta Karinak. Bart iritsitako Sarrionandiaren testu batean, itzultzaileei hala esaten zien: «irakurketa oro partitura bat da, bai itzultzailearentzat, bai irakurlearentzat». Egin ditzatela testuak bere, erdi idazle erdi itzultzaile izateko; bezperan azaldu bezala, autoretasuna kolokan jartzeko joerarekin bat dator hori. «Ez naiz idazlea idazten dakidalako, baizik eta idazten ez dakidalako kontzientziarekin ahalegintzen naizelako». Ahalegin baten ondorio da testu oro.

Itzultzaileek zenbait galdera helarazi zizkieten autoreari, eta horiei ere erantzun die bart. Literatur lanen ahalaren inguruan, Sarrionandiak dio liburua objektu bat dela, eta gauzak inork aldatzekotan, «subjektua» dela horretarako gai. Nolanahi den, literatur lanak badu eraldaketarako indarrik: «Ekintza errealak beti ez dira literatur irudimenak imajina dezakeena bezain aparta». Hizkuntza gutxituetan idazteari buruz itauntzean, haurtzarora jo du iurretarrak, familia euskaldun batean sortu arren, giroa guztiz kontrakoa zela aitortuta: «amonak esan zidan eskola ongi zegoela, baina inteligenteak zirela beste hizkuntzak ikasten zituzten horiek, ez norberarena ahazten zutenak». Bidalitako beste galdera batek “Herri proiektua” poemari egiten zion dei, Euskal Herriko eta Esloveniako nazionalismoen arteko alderaketa eginez; horren harira, Sarrionandiak dio poema hori nazionalismoa dogmatzat hartzeari kritika bat dela. Galderaren egileak adierazi duenez, barru-barruraino sartu zaizkio testuak itzultzean, eta, beraz, hainbeste sentitu eta sufrituta, «iruditzen zait eskubidea dudala galdetzeko». Izan ere, ausartak izan dira galderak, baina, ohi bezala, merezi izan du atrebentziak.



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

Deserriko gorpuzkien disezioa

Segidan ekin diote poemak banan-banan aztertzeari, hots, Eider Rodriguezek lantegi honetan egon eta gero erabilitako metafora berreskuratuz, zirujau baten zorroztasunez disezionatzeari. “Oroimeneko portua” izan da lehena, eta luze jo dute horrekin; hasteko, errima atera dute argitara, -ara, -ira, -era, -ora, -ura gorde nahi eta ezinean baitabiltza itzultzaileak; neurria gordeko duten ere zalantza dute. Lexikoari buruz, “itsaslamia” tokikoa baliokidetza bidez eman du itzultzaileetako batek, errusieraz rusalka ordaina jarrita; beste bi itzultzaileek, aldiz, lamia utziko dutela uste dute, moldaketa grafiko txiki batekin, soinua atsegin dutelako eta kalterako izanen ez delakoan. Hain zuzen, betikoa da irabazi-galera arteko oreka bilatzeko saioa. Guztiek bat egin dute poesian ez zaizkiela oin-oharrak gustatzen, eta gehiago jotzen dutela, behar izatekotan, glosarioa jartzera. Auzi sintaktikoa ere eztabaidagai izan dute, marinelen arteko borroka irudien bidez ematen baita, aditzik gabe. Otegik aipatu du Ane Berroren tesia, ondorioztatzen duena ez dela euskaraz aditzik, nominalizazioak eta beste baizik. Sarrionandiak ere badu «aditzik gabeko hizkuntza» dioen poema bat. Euskararen trinkotasuna eslovenierarekin parekatu du Barbarak, eta hala ere aditzen elipsiak harritu duela dio, berak aditzak gehitu behar izan baititu.

Euskalkiak nola nahasten diren aipatu dute “Amodio protopoema” aztertzean. Tentsioa handitzen doa poemaren, gradualki, bukaerako efektu indartsura iristeko. Azken esaldia zer ordenatan eman ere eztabaidatu dute, «garrasika» adberbioak itxi behar ote duen derrigor poema. Eskuaratean ditugun bost hizkuntzetan (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez) hala dago, bukaeran, baina badirudi eslovenieraz ezin dela horrekin amaitu hizkuntza gehiegi bortxatu gabe. Poemaren irudi ederrak eta eduki samurra azpimarratu dute, edozein hizkuntzatan jarrita ere irakurlea kolpatzeko moduko indarra dutelakoan.

Arazo batekin hasi dugu “Harriak eta herriak” poema, Gabriel Arestiri erreferentzia azaldu behar baita; kasu horretan, ez dute gaizki ikusten oin-oharra jartzea. Zailena izenburua dela esan dute, bestela irudiz beteriko poema dela. Autoreari galdera zuzen bat egiteko eskatu dute: zergatik mozten ditu horrela esaldiak eta zangalatrau horiek egiten? Hots,

Munduan bada bazter bat (ez genuen guk
sortu orduko hautatu)
gure herria erizten duguna. Eta mundu guzia da gurea
gure herria geurea bada.



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak

Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

Azken esaldi horri aforismo itxura ere hartu diote, daukan pisu eta indarragatik; behin baino gehiagotan azaldu dute poemekiko miresmena. Karina errusiarrak dio «mundu mugarriz pikatuan» sintagmarako neologismo bat erabili duela; hain zuzen, “arropa moztu, laburtu beharra” esan nahi duen aditza omen dute errusieraz, *obkornat’*, eta hori erabili du mugak jarri beharra adierazteko.

Kafe-tertuliaren ondoren, non ez baitiote itzulpenari buruz hitz egiteari utzi, “Gure begiek” poemari heldu diote. Ruper Ordorikaren kantua atera da hizpidera, ahapaldi bat irakurrita entzutean, zuzenean haren doinua bururatu baitzaio kronikagile honi; hala, Itziar Otegik esan du horren arabera mundua, hemen, bitan bereiz daitekeela, hots, Ruper biziki maite dutenak, batetik, eta batere gustatzen ez zaienak, bestetik; esan gabe doa: langela honetan gauden euskaldunok lehen multzoan sartzen gara. Itzulpenera etorrita, Victor Hugoren aipua du poemak, frantsesez, eta hori bere horretan uzteaz aritu dira. Gain interpretazioa hartu dute gero hizpide, euskarakoak adierazten ez duen efekturen bat ekar baitezake horrek. Zehatzago, «Ez entzun, ez begiratu, ez pentsatu gehiago» dioenean, nori ari zaion eztabaidatu dute, inpersonala baita, baina eslovenieraz, esaterako, ezin da horrela, infinitiboan eman; lituanieraz, berriz, inpersonalak ez du arazorik ematen. Bigarren pertsona singularrean jarrita egokia da?, horra autorearentzako beste galdera bat. Koloreak ere arazotsu gerta daitezke batzuetan, batez ere polisemikoak direnean eta eskura sorburu-testu bat baino gehiago dugunean. Euskarazkoak «laku urdinen hondoa» dio, eta gaztelaniazkoak «el fondo de lagos grises». Laura lituanierak *urdin* eta *gris* hitzak uztartuko dituela esan du, nolabait batuko dituela. Hortaz, *urdin* hitzak bi adiera dituela jakiteak hasieran harritu bazuen ere, aurkitu du ordaina; gaineratu duenez, «gaur itsasoa kolore horretakoa da».

Koloreei iritzi-truke gehiago eskaini diete, ez da alferrik gurean tesiak betetzen dituen gaia. “Zaramologia” poema izan da aztertzen hurrena, neologismo bat behar duena titulutzat. «Zazpi zaborrontzi kale bazterrean / (zazpiak lerroz lerro)» hasten da eta gero berriz errepikatzen du, Lantainako alabaren balada zaharrari erreferentzia eginez; oihartzun hori desagertu egingen da itzulpenean, ez baitute oin-oharrik jarriko; hala ere, adierazi dute azalpentxoren bat egingen dietela poemei. Bestalde, «kaiola-txori hilak» erraz-itxurakoak ere buruhauste bat baino gehiago eman dizkie; Karinak txori beharrean *kanario* jarri du, espezifikatuz, bada, luze joko liokeelako bestela azaltzeak kaiolan bizitzeko txoriez mintzo dela. Orobat iruditu zaie indar handiagoa duela poemak euskaraz gaztelaniaz baino. Lexikoari begiratuta, «eta egin hiritarren behar intimoen / historia hitsa» dioenean, *intimo* hitzaren adieraz solas egin dute, errusieraz, antza, adiera sexuala baizik ez duelako; hori dela eta, itzultzaileak kendu egin du adjektiboa.



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

“Iluntasuna neurtzen” izan da goizean landu duten azken poema. Otegi adierazi du gai pisuzkoak jorrazteko eguneroko objektu xume eta soiletan arreta jartzea hunkigarri zaiola, «gure hutsaltasun eta hauskortasuna» argitan jartzen baitu. Sarrionandiak behin baino gehiagotan darabil estrategia hori, argiki poema honetan. Beste zalantza sintaktiko bat bukaera aldera: «Eskerrak ilunpeak ditugula, argirik oraindik ez badugu» dio poemak; bigarren zatia baldintza da, ez denborazkoa, eta horrek bitxitasuna ematen dio, nahiz eta «ez badugu» hori «ez dugunez» uler daitekeen. Baldintza hori nahita jarria ote den, interpretatu egin behar ote den izan da bazkალაurreko azken eztabaidagaia.

Itzultzaileek esker ona adierazi dute antolatzaileek idazlea ezagutarazi dietelako, eta poemaren hautaketa ere primerakoa iruditu zaie. Kronikan hala jaso dadin eskatu dute, eta hau idatzita jo dugu sabelak berdintzera.

Koadernoko orriak aletzen

Arratsaldeko saiora Arantxa Urretabizkaia etorri da, disezioari «aurre egiteko prest». *Koaderno gorria* eleberriko 6. eta 7. ataletako 10 orrialde inguruko lagina itzuli dute, eta xede-hizkuntzak bulgariara, poloniera, estoniera eta txekiera izan dira. Zuzenean lotu zaizkio apelatiboak nola itzuli eztabaidatzeari. Atzo ere atera zen *ama* nola eman, gaztelaniazko *mamá* baino, *madre* egiten baitzaio naturalago Urretabizkaiari berari. Merilin, Katarzyna, Lenka eta Mariya itzultzaileek, ordea, gehiago jotzen dute lehen aukera horretara, bestea hotzegia iruditzen baitzaie, ia «hizkera administratibokoa». Aurrekoari lotuta, afekziozko hitzez mintzatu dira; Mariyak esan du bulgariaraz “udaretxo” edo “hartzatxo” esaten ahal dela hurbiltasuna adierazteko, ez, ordea, testuan ageri den «bihotz ederra», gozoegia geratzen baita. Estonieraz “zerbait oso baliotsua” adierazten duen hitz ez melenga erabiliko du Merilinek. Polonieraz, berriz, ama halako gozotasunez mintzatuz gero, pertsonaiaren nolakotasuna aldatuko lukeela iruditzen zaio Katarzynari, interpretazioa ere aldatzeraino.

Kulturematzat har daitezkeen horietara jo dute gero itzultzaileen kezkek. Hala, «Ikastola» nola eman erabakitzeke, liburua noiz idatzia den jakin nahi izan dute; autoreak esan du 89an ekin ziola idazteari, 90 hasieran jakin zuela haurdun zegoela, eta tarte batez idazketa utzi egin zuela. Urretabizkaiak esan du berak “eskola” emanen lukeela. Tokian tokikoa, ordea: Polonian eta Txekiar Errepublikan zazpi urteak bete arte daude umeak haurtzaindegian, beraz, hala eman beharko dute euren hizkuntzetan, *eskola* baino, *haurtzaindegi*. Zalantza bera sortu zaie «baserri» hitzarekin, ez baitakite bere horretan utzi eta oin-ohar bidez azaldu edo ingelesezko *farm*, frantsesezko *ferme* eta gaztelaniazko *granja* modura eman, nork bere hizkuntzan. Mariyak dio ez zaiola zuzena iruditzen bulgariarazko itzulpenean bere horretan uztea, testuinguruan hitzak ez duelako eragin edo garrantzia



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

handirik; hala ere, «Ikastola» bere horretan utziko du, euskaraduna dela nabarmentzeko, nahiz eta eskola publikoan ere, garaian, euskaraz irakasten zen. Lurraldetasunaren auzia buruhauste-sortzaile da itzulpenean ere. «Iparraldea» nola emanen duten galdetu du koordinatzaileak, eta Karinak erantzun du País Vasco-francés emanen lukeela errusieraz, hala eman ohi duela, eta Urretabizkaiak bat egin du hautu horrekin, oso errotuta dagoelakoan. Mariyak esan du “el país de los vascos” dela Euskal Herriaren ordaina bulgarieraz, eta horri “frantsesa” gehitzean hitz bitxi samarra geratzen dela. Katarzynak esan du argi izan behar dela nork idazten duen koadernoan, nor den hizlaria (ama semeari zuzentzen zaio); hori dela eta, “País Vasco-francés” jartzea administratiboegia iruditzen zaio. Gainera, ez du oin-oharrik erabili nahi, eta beste moduren bat bilatuko duela dio. Estonieraz, Merilinek “Euskal Herriko iparraldea” jarriko du, «gehiago jakin nahi duenak bilatuko du». Eztatanda ez da bere horretan geratu, eta beste aukera batzuk ere atera dira, zein bere kontra-argudio eta ñabardurekin.

Urretabizkaiaren istorioaren uneren batean, ama-semea jolasean ari dira ohean: «Lehenengo txanda hartan ni hartz ama nintzen eta zu hartz kumea», dio koadernoan. Otegik horri bitxi irizten dioten galdetuta, itzultzaileek ezetz erantzun dute, hartz-jolasean ibiltzeak ez omen die arazo linguistiko-kulturalik sortzen beren ama-hizkuntzetan.

Iruzkin bete paper

Itzultzaileek ere hamaika galdera ekarri dituzte, lexikoari lotutakoak batez ere. Esaterako, «alpretak» zer diren galdetu dute, eta beren hizkuntzetan zer ordainarekin eman behar duten erabakitzeke, materialaz, sortze-moduaz, jatorriaz eta bestez mintzatu dira. Gurean genero markarik ez denez, Lenkak jakin nahi izan du testuan «lehengusu» agertzen denean zertaz ari den, ez baitu modurik txekieraz zehaztu gabe jartzeko; maskulinoan eta femeninoan eman dezakeela pentsatu du, bietan, alegia, eta orduan Katarzynak esan du polonieraz bietan emanez gero, ume kopuru piloa emanen zukeela aditzera. Urretabizkaiak ebatzi du auzia («jarri maskulinoan»), Mariyaren harridurarako, zeinak pentsatu baitzuen lehengusinez ari zela testua. Autoreak gehitu du etekina atera ohi diola generoa zehaztu behar ez izate horri, baita gustuko duela ere.

Testuaren bukaera aldean, bada gaztelaniazko esaldi bat euskarazkoan, Venezuelako hizlari baten esanak emateko. Zenbait paragrafo lehenago, euskarazkoan betiere, «Arratsalde on, dio euskaraz» agertzen da, eta hori bere horretan uztea erabaki dute itzultzaile gehienek; zalantza handiagoa dute, ordea, gaztelaniaz agertzen den pasartearekin, eta heterolingüismo kasu jakin hori nola emanen duten erabaki ezinik iritzi-trukean aritu dira. Itziar Otegik adierazi du



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

itzulpen-hautu guztiek sare bat osatu behar dutela, koherentziaz jokatzeari komentatu behar dela, alegia.

Errepikapenekin zer egin galdetu du Mariyak: «iruditzen zaidanean nahita egin behar dela, hala uzten dut, bestela, sinonimoren bat bilatzen dut». Urretabizkaiak esan du euskarak ez duela konpartitzen «gaztelaniaren ez errepikatzearen mania», eta are, Itziar Otegik dio «efektua egiteko ere erabiltzen dela». Autoreak atzo aipatu zuen ez duela hizkuntzak traba egiterik nahi, hots, ez duela nabarmenkerik nahi, beraz, hori kontuan hartuta egin behar duzute hautuak itzultzaileek. Errusieraz eta bulgariaraz deigarria izanzen bada hiru aldiz segidan “esan du” agertzea, beraz, horietako bat kentzea edo beste modu batez ematea komeniko litzatekeela ondorioztatu dute parte hartzaileek.

Erregistro kontuez ere hitz egin dute, hizkuntza batean eta bestean ez baitute kutsu edo konnotazio bera hitz edo sintagmek. Lore eta landareei buruzko pasarte bat lituanierara aldatzeko, adibidez, Laurak aipatu du kontu handiz ibili behar dukeela zer hitzekin eman, sentimentalegia gero baitaiteke, botanika hutsa izanik ere. Bitxikeria modura, Mariyak esan du Bulgarian hilerriko marrubiak direla hobekien hazten direnak, ongari aunitz baitute, eta itxuraz, horiek dira ederrenak; beraz, konnotazio espezifikoak izanzen ditu.

Zalantza ortotipografikoak ere hizpide izan dituzte. Koaderno-idazleari dagozkion paragrafoak komatxoekin hasten dira, ez, ordea, L. pertsonaia narratzailearen ahotsa denean. Urretabizkaiak esan du argitaletxearen erabakia izan zela hori, eta berak ez zuela zalantzan jarri. Estonian ez omen dira halakoak erabiltzen, eta gaztelaniazko bertsioan ere ez da halako bereizketarik egiten.

Hain zuzen, Merilinek gaztelaniazkoa hartu du sorburu-testutzat, eta «se calmarían las aguas» esamoldea itzultzean, ura haizearekin ordeztu du, estonieraz “ura baretu” esateak beste zerbait emanen bailuke aditzera, “argitu” zentzuetik hurbilagoko zerbait. Bide beretik, erreferentzia erlijioso-kulturalak atera ditu Otegik hizpidera: «Ez zen tximistarik erori ez itsasorik erdibitu» eta «Itzuliko zaizkit, erreztatu dut egunero ugaritan, budisten antzera». Alta, irakurleek ez dute horiekin arazorik izan, argi identifikatu baitute erreferentzia. Baina «nola zeruan hala lurtean» esamoldeari, aldiz, kutsu kristaua hartu diote itzultzaile gehienek (gaztelaniazko itzulpenean, «tanto en el cielo como en la tierra»); autoreak, aldiz, ez zuten du halako asmorik dagoenik.

Ekintzak orainaldian nola kontatu behar ote diren eztabaida piztu zen duela zenbait urte, orainaldi burutuan (joan da, ekarri du) soilik zen posible edo, zenbait hizkuntzalarik ziotenez, baita burutugabeen ere (joaten da, ekartzen du). *Koaderno gorrian* bigarren aukera darabil Urretabizkaiak, behin-behinekotasun



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

handiagoa duelakoan. Otegik esan du Saizarbitoriak zabaldu zuela bigarren bide hori, nahiz eta zenbait klasikotan ere ageri den. Azkenik, erreferenteak zehazteko, keinuak antzezteko eta metaforak argitzeko ere eskatu diote autoreari; besteak beste, euskarazko testuko «kafea egiteko erabiltzen duen tresna elektrikoa» kafe-makina den jakin nahi izan du Merilinek, «edo beste makina espezifikokoago bat den».

Poesia joko bihurtzen denean

Atsedenaldi laburra eta gero, traduktologiaren inguruan eztabaida piztu nahi izan du Itziar Otegik, Antoine Bermanen “La traduction comme épreuve de l'étranger” artikulua oinarri hartuta. Lantegian teorizazioari eskainitako saiorik ez bada ere, tartetxo bat egin nahi izan dio koordinatzaileak, eztabaida sustatu asmoz. Lehenik, baina, Antonio Casado da Rocha izan dugu lagun saio honetan, eta euskaldun berri eta itzultzaile esperientziatik mintzatu zaie parte hartzaileei. Hogeita hamar urteak arte gaztelaniaz bizi izan zen, eta Islandian sortu zitzaion beharra euskarara hurbiltzeko, kide euskaldun bat baitzuen han. Islandian bertan heldu zion lehenengo hartu-emanari; kasurako, «platerak garbitu edo erratza pasatu bitartean entzun» egiten zituen CDak. Bueltan, euskaltegian eman zuen izena, eta hiruzpalau urtetan euskaldundu zen. Ikasketa prozesuan, literatura baliatu zuen «input linguistikoa» eskuratzeko, poesiaren bitartez, zehazki, eta horrek aunitz lagundu omen zion. Esan du euskararekin izandako arazo gehienak «psikologikoak eta soziologikoak» zirela; hala, hizkuntza ikastearen inguruan topiko aunitz daudela aipatu du, eta mamu horiek uxatzeko ekin ziola poesiarekin jolastu eta idazteari. «Bi komunitate linguistikoaren arteko harresi hori apurtu» eta gurea kanporatzeko saioan ez da inoiz aski jende egonen; horretan ari da Casado da Rocha, besteak beste, Lizardiren Baratza irratsaioaren bidez. Azkenetako emanaldi batean, Billy Collinzen bost poema itzuli eta euskal bost poemarekin harremanean jarri ditu.

Euskaraz pentsatzen ote duen galdetu diote; filosofoak adierazi du behin mitxoletaren irudia ikusi eta segidan euskarazko hitza etorri zitzaiola. Hori mugarri izan zen harentzat, nahiz eta egunean hainbat hizkuntzatan pentsatzen duen, zer testuingurutan dagoen. Orobat aipatu du hiztegiak aunitz kontsultatzen dituela, baina interes bera duela erabiltzen den euskararekiko, hots, zilegitasuna ematen diola ere hiztegian agertu ez baina hizlariak darabilten hizkuntzari. Esan duenez, arriskuak har ditzake poeta delako, itzultzailea balitz ez luke, segur aski, halakorik eginen. «Hasieran purista nintzen, baina batzuetan ulermenaren kalterako zen, eta orain jendeak darabilen hizkera horretara hurbiltzen saiatzen naiz, aldi berean zerbait ederra eta freskoa egiteko». Euskarazko poesiaren metrikari buruz ere galdetu diote itzultzaileek, bezperan zintzilik geratu baitzen galdera, eta bisitariak errepasso historiko bat egin du bertso eta koplak neurri



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

ohikoenetatik. Horrela, itzultzaileak adoretu ditu: «Nik duela hamar urte ez nekien zer zen koplak bat, baina orain horrek nire bizitza aberasten du».

Azkenean, solasaldi atsegina luzatu eta beste baterako utzi du Itziar Otegik hasieran proposatutako hausnarketa. Egun osoko eguzkiak gela berotu du, itzulpen-borrokak burua, gortina jaitsita ere izerditu gara, eta orain azala berotzera eta burua argitzera atera gara kalera.